

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BERMEOKO UDALAREN 2013-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bermeoko Udalaren 2013ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak Udala, bere toki erakunde autonomoak eta Beruala, SA sozietate publikoa barne hartzen ditu; txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta diru-laguntzaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta erakunde autonomoen jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dutela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Honela, bada, langileriari dagokionez adierazi da berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratu direla aldi baterako bost lan kontratu lan kontratu mugagabe bihurtzean; berebat, iraupen luzeko hiru lanpostu betetzeko ez da berriazko deialdirik egin, aldizkari ofizialean publikotasuna emanaz.

Kontratazioaren atalean araudi erregulatzailean egindako hainbat ez-betetze azpimarratu dira, hala nola: zerbitzu kontratu bat aldatu da urteko gastua areagotuz eta hasierako esleipena desitxuratuz; aurreko ekitaldietan esleitutako hiru espediente 2013an egikaritzen jarraitu da, kontratuak iraungiak zeudelarik iraupen epe gehiengoa amaitua zegoelako; eta azkenik, bost zerbitzu zuzenean esleitu dira, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz.

Berebat, udal jarduerari dagokionez azpimarratu da, sustatzaileari areto baten eta 60 aparkalekuren gaineko hirigintza eskubideak milioi bat euroren zenbatekoan zuzenean besterentzearekin hainbat araudi urratu direla, esate baterako, aurrez hutsik geratu zen lehiaketa publikoaren prozeduran ezarritako ordainketa baldintza sustraitik aldatzea; besterentzea ezinezkoa da zuzkidura izaera publikoa duelako eta ez da aparkaleku

publikoaren kalifikazio juridikoa aldatu; ez dago adituen baloraziorik, besterentze prezioa justifikatuko duenik.

Udalaren eta bere erakunde autonomoen Kontu Orokorrei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doikuntzen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 1 mila euroan murriztu dutenak.

Beruala, SA sozietate publikoari dagokionez, HKEEren iritzia legezkotasuna eta Urteko Kontuak betetzeari buruzko iritzia aldekoa da, nahiz txostenean bertan hainbat ez-betetze eta salbuespen aipatu diren; horien artean dago eraikuntza bat zati batean eraisteko agintzen duen epai bat egikaritzeak eragin dezakeen kostuaren gaineko zalantza egoera.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Azkenik, Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2011-2013 aldian sortutako aurrezki garbia nabarmen murriztu dela jakinarazi da eta honenbestez, Diruzaintza Geldikinaren zenbatekoa aintzat hartuta, Udalak inbertsioak egiteko duen gaitasuna oso mugatua da, onartutako Doikuntza Planak jasotzen duen moduan. Beharrezkoa litzateke, bada, Udalak ahalegina egiten jarraitzea, bai gastu arruntari eusten, -langile gastuetan bereziki, nabarmen gainditzen baitute Bizkaiko lurralde historikoaren bere biztanle geruzako udalen batez bestekoa-, bai sarreretan ere, antzeko udalen batez bestekoak duena baino presio fiskal erlatibo txikiagoa baitute. Azkenik, 2014ko aurrekontua aurrezki gordin negatiboarekin onartu dela adierazi da eta horrek doikuntza osagarriak egitea eska dezake.